

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

846

10/2023 EBAZPENA, otsailaren 7koa, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariarena, enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan onartutako eta bazter utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartzen duena, Herri-Kontuen Euskal Epaitegian Administrari lanpostua betetzeko.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren abenduaren 1eko 72/2022 Ebazpenaren bitartez (abenduaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 248. zk.) lehiaketa bidez lanpostua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deia egin zen, karrerako funtzionario moduan Herri-Kontuen Euskal Epaitegian Administrari plaza bat betetzeko; lanpostu hori 2022ko ezohiko enplegu publikoaren eskaintzari dagokio, eta salbuespenezkoa da.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegian enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikotan eta oinarri orokorretan aurreikusitakoaren arabera arautuko da hautaketa-prozesua. Oinarri horiek azaroaren 30eko 67/2022 Ebazpenaren bidez onartu ziren (2022ko abenduaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 247. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta oinarri orokorren seigarren oinarriko 2. apartatuan ezarritakoaren arabera, bidezkoa da, Lehendakariaren ebazpen bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren iragarki-oholean eta web-orrian argitaratuko da. Interesdunei 10 eguneko epea emango zaie erreklamazioak aurkezteko eta bazter uztea eragin duten akatsak edo agiriak zuzentzeko. Aurreikusitako epean erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da.

Hori guztiori aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan onartutako eta bazter utzitako izangaien behin-behineko zerrenda, Herri-Kontuen Euskal Epaitegian Administrari lanpostua karrerako funtzionario gisa betetzeko, Ebazpen honen eranskinean jasoa dagoen moduan.

Bigarrena.– Argitaratzea onartutako eta bazter utzitako izangaien zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren iragarki-oholean eta web orrian.

Hirugarrena.– Interesdunei 10 eguneko epea ematea erreklamazioak aurkezteko eta bazter uztea eragin duten akatsak edo agiriak zuzentzeko.

Laugarrena.– Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 7a.

HKEEko lehendakaria,
ANA HELGUERA LÍBANO.

HKEEko idazkari nagusia,
JULIO ARTETXE BARKIN.

2023ko otsailaren 17a, ostirala

ERANSKINA

LANPOSTUA: ADMINISTRARIA
NAHITAEZKO 2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

ONARTUTAKO IZANGAIEN ZERRENDA

Dokumentua	Abizenak eta izena
***6973**	Aresti Urien, Maria Begoña
***1489**	Arnillas Fernández, Saray
***3823**	Caamaño Pena, Sandra
***2281**	Egido Aldeiturriaga, Maite
***3378**	Garcia Fuentes, Ainoa
***4339**	Garro Lejarraga, Maddi
***2303**	Goikoetxea Lopez de Alda, Borja
***4126**	Gonzalez Liceaga, Janire
***0470**	Gonzalez Rodriguez, Nahia
***1668**	Pesquera González, Leire
***6201**	Pinacho Carmona, Maite
***0866**	Sagarribai Gonzalez, Miren Arantzazu
***5557**	Tombelle De Lorenzo, Carmen
***5341**	Villasante Arenas, Ainara
***7524**	Zalduendo Telleria, Jon
***5773**	Zinkunegi Huarte, Ainhitze

BAZTER UTZITAKO IZANGAIEN ZERRENDA

Dokumentua	Abizenak eta izena	Bazterturik uzteko arrazoiak
***5869**	Mugica Ornavuru, Maria Amaya	PL
***7566**	Peña Romo, Maria Gema	PL

Bazterturik uzteko arrazoiak
HEBaztertzeko arrazoiak
Ez du hizkuntza-eskakizuna betetzen